

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresaren helburua da arbela garbitzeko gailu automatikoa ikastetxeetara modu eraginkor, jasangarri eta hurbilean helaraztea. Enpresa txikia eta hasi berria garenez, ezin dugu banaketa edo marketin sare handirik erabili; horregatik, kanal zuzenak, tokikoak eta digitalak erabiltzen ditugu, kostuak murrizteko eta bezeroekin harreman estua izateko.

Kanalak dira gure bezeroekin dugun lotura nagusia, eta haien bidez lortzen dugu gure balio-proposamena (osasuna, erosotasuna eta berrikuntza) merkatu-segmentuetara helaraztea.

1. Komunikazio-kanalak

Komunikazio-kanalen helburua da ikastetxeek gure produktua ezagutzea eta haren onurak ulertzea. Horien bitartez, produktua ezagutarazi eta interesa sor dezakegu.

Gure kanal nagusiak hauek dira:

- **Informazio guztia eskuratzeko [webgunea](#):** bertan, interesa duen edonork produktuaren naiz enpresaren inguruko informazio guztia jaso dezake. Gainera, hor enpresaren email-a, telefono zenbakia eta instagram-a daude argi adierazita.
- **Email bidezko harremana:** Gasteizko eta inguruko ikastetxeetako zuzendaritza eta administrazioarekin.
- **Telefono zenbakia:** interesa duten ikastetxeei informazio gehiago emateko.
- **Instagram kontua:** komunikabide honen bitartez, publiko zabal batera hel gaitezke.

Kanal hauek kostu txikikoak dira eta oso egokiak bezero profesionalekin harreman fidagarri eta zuzenekoak sortzeko. Are gehiago, prestatu ditugun komunikazio-kanalen bidez, erraz eta azkar lor ditzakegu bezeroarengana heltzea, modu eraginkor batean.

2. Salmenta-kanalak

Gure salmenta-eredua zuzeneko salmentan oinarritzen da, bitartekaririk gabe, prezioa kontrolatzeko eta bezeroarekin harreman zuzena izateko. Gainera, horrela, salmenta osoa kudeatu ahal izango dugu. Hauek izango dira produktuaren salmenta burutzeko bideak:

- **Email bidezko eskaerak.**
- **Telefono bidezko eskaerak.**

Sistema honek aukera ematen digu, enpresa txikia izanik ere, salmenta-prozesu profesional, pertsonalizatu eta eraginkorra eskaintzeko.

3. Banaketa-kanalak

Banaketa-kanalek gure arbela-garbitzaile automatikoa fisikoki ikastetxeetara eramateko eta bertan martxan jartzeko erabiltzen ditugun bideak dira. Produktua handia eta teknikoa denez, banaketa zuzeneko eta kontrolatua izango da:

Bezeroa gurekin harremanetan jarri (telefono zein mezu bidez) eta gure taldeak (banaketan arduratzen den langileak zehazki) gailua ikastetxera eramango du, instalatzen lagunduko du eta aplikazioa konfiguratuko du. Horrek kalitatea eta bezeroaren konfiantza bermatzea erraztuko digu.

Banaketa eredu honek kostuak murriztuko ditu eta aldi berean, bezeroari zerbitzu profesionala eskaintzen dio.